

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2022 Foru Dekretua, abenduaren 27koa. Onespena ematea Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuaren aldaketari**

Kontseiluaren urriaren 6ko 550/2015 Erabakiaren bidez, Foru Administrazioak Internet sarearen bidez ematen dituen informazio eta zerbitzuetako antolaketa eta funtzionamendu arau batzuk aldatu ziren, orri elektronikoz guztiek araba.eus domeinua izan zezaten. Arabako Foru Aldundiaren interneteko presentzia eredu gisa araba.eus domeinu berria abian jartzeak egoitza elektronikoen erreferentziako helbide elektronikoi eragin zion, eta, ondorioz, Kontseiluaren otsailaren 23ko 22/2016 Foru Dekretua onetsi izana justifikatu zen. Dekretu horrek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen domeinua aldatu zuen, eta <https://egoitza.araba.eus> helbide elektronikoz bihurtu zen.

Bestalde, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onesten duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 7. artikulua ezartzen duenez, administrazio publiko guztiek irispide puntu elektronikoz orokor bat (aurrerantzean, IPEa) izan behar dute, dagokion administrazio publikoari lotutako edo haren mendeko organoen, organismo publikoen eta entitateen zerbitzuetarako, izapideetarako eta informaziorako sarbidea emateko. Irispide puntu orokor horrek, gainera, eremu pertsonalizatu bat izan dezake, zeinaren bidez interesdun bakoitzak irispidea izan baitezake bere informaziora, eragiten dioten administrazio izapideen jarraipenera eta administrazio publiko eskudunaren eremuko jakinarazpen eta komunikazioetara, bere datu pertsonalen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen duten prozedura seguruen bidez. IPEa, beraz, dagokion administrazio publikoari lotutako edo haren mendeko organo, organismo publiko eta entitateen zerbitzu, izapide eta informaziorako sarbidea errazten duen interneteko ataria da, eta haren organoen egoitza elektronikoz elkartzeko eta organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen egoitza elektronikoz biltzen edo bideratzen ditu.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da Foru Aldundi honen egoitza elektronikoa sortu zuen Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretua aldatzea, Arabako Foru Aldundiaren IPEa ezartzeko egoitzaren erreferentziako helbide elektronikoz berean (<https://egoitza.araba.eus>), egun Arabako Foru Aldundiaren informaziora, zerbitzuetara eta izapide elektronikoztara irispidea izateko herritarren eskura dagoen web gunea baita.

Zehazki, "Arabako Foru Aldundiaren Irispide puntu elektronikoz orokorra" 6. artikulua berri bat gehitzen da. Artikulu horretan xedatzen denez, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren 7. artikuluari jarraituz, Arabako Foru Aldundiaren IPEa egoitzak duen erreferentziako helbide elektronikoz berean ezartzen da: <https://egoitza.araba.eus>.

Aldaketa horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren IPEko egoitza elektronikoz eremu pertsonalizatu batera edo herritarren karpeta batera sartzeko aukera aurreikusten da. Bertan, interesdun bakoitza bere informaziora sartu ahal izango da, bai eta eragiten dioten administrazio izapideen jarraipenera eta administrazio publiko eskudunaren eremuko jakinarazpen eta komunikazioetara ere, <https://e-s.araba.eus> domeinuaren <https://egoitza.araba.eus> domeinurako migrazioa dela-eta eremu pertsonalizatu edo herritarren karpeta horretarako ezar daitekeen zerbitzu multzoak egitura elkarreragingarriago bat izanez, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 55/2021 Foru Dekretuaren xedapen iragankorrean aurreikusitakoari jarraituz.

Azkenik, ezartzen da Arabako Foru Aldundiaren IPEko edukien eta funtzionalitateen kudeaketak baliagarria izan behar duela Arabako Foru Aldundiaren eta hari lotutako edo haren mendeko erakunde publikoen zerbitzu, prozedura eta informazio irisgarrietarako sarbidea gidatzeko eta errazteko, eta herritarrek zerbitzuak erraz eta intuizioz identifikatzeko moduko irizpideen arabera antolatu behar direla, hargatik eragotzi gabe Arabako Foru Aldundiaren Interneteko presentzia ereduari buruz emandako jarraibideak.

Eta hori guztia, alde batera utzi gabe aplikatu beharreko legeek ezarritako edukiak eta baldintzak pixkanaka sartu behar direla, eta, bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko titulua V. kapituluaren egoitza elektronikoetarako ezarritakoak.

Foru dekretu honetan genero ikuspegia txertatzen da eta prestatzean kontuan eduki dira 29/2017 Foru Dekretuko xedapenak (Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, onespena ematen diena xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau inpaktuaren eta genero inpaktuaren txostenak egiteko gidei eta araugintza jarraibideei).

Horregatik, nahitaezko txostenak egin ondoren eta Enplegua, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko eta Foru Administrazioiko Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Bakarra. Kontseiluaren apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuari 6. artikulua gehitzea. Honela geratuko da idatzita:

#### **“6. Artikulua. Arabako Foru Aldundiaren irispide puntu elektroniko orokorra”**

a) Arabako Foru Aldundiaren irispide puntu elektroniko orokorra (aurrerantzean, IPEa) ezartzen da (<https://egoitza.araba.eus>) erreferentziako helbide elektronikoan ; bertan, Aldundiaren beraren egoitza elektronikoa ere agertzen da.

b) Arabako Foru Aldundiaren IPEren barruko egoitza elektronikoan eremu pertsonalizatu pertsonalizatu baterako edo herritarren karpeta baterako irispidea dago. Bertan, interesdun bakoitzak, bere datu pertsonalen segurtasuna eta konfidentziasuna bermatuko duten prozedura seguruen bidez, bere informazioa, eragiten dioten administrazio izapideen jarraipenera eta foru administrazio honen eremuko jakinarazpen eta komunikazioetara sartu ahal izango da.

c) Arabako Foru Aldundiaren irispide puntu elektroniko orokorrak Arabako Foru Aldundiaren eta hari lotutako edo haren mendeko erakunde publikoen zerbitzu, prozedura eta informazio irisgarrietarako sarbidea gidatzeko eta errazteko edukiak eta funtzionaltasunak izango ditu.

d) Arabako Foru Aldundiaren irispide puntu elektroniko orokorra hainbat irizpideren arabera antolatuko da, herritarrek erraz eta intuizioz identifikatu ahal izan ditzaten eskuratu nahi dituzten zerbitzuak.

#### AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a

*Diputatu nagusia*  
**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Zerbitzu Orokorraren zuzendaria*  
**JAVIER MARDONES GÓMEZ-MARAÑÓN**